1.- *Mozio ez-erabakitzailea elkarteen udal-erregistroan inskribatuta dagoen elkarte batek aurkezten badu, legezko ordezkariak sinatu beharko du, eta batzar nagusiak edo goi-mailako gobernu-organo batek horri buruz hartutako erabakia erantsi beharko zaio. Era berean, organo horrek Sopelako biztanleen artean adinez nagusiak direnen ehuneko baten ordezkari izan behar du.*

2.- *Mozio ez-erabakitzailea Sopelan erroldatuta dauden adinez nagusiek aurkezten badute eta legez adinez nagusiak diren herritarren ehuneko baten ordezkari baldin badira, aurkezleetako bakoitzak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da. Adierazpen horren xedea mozioaren ageri diren sinaduren autentikotasuna bermatzea da. Erantzukizunpeko adierazpena mozioaren testutik kanpo utz daiteke.*

3.- *Nolanahi ere, posta-helbidea, posta elektronikoko helbidea edo telefono-zenbaki bat agertuko da, komunikazioak bidaltzeko.*

4.- *Mozioa aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio-Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan edo ordezkoi araudian aurreikusten diren bitartekoetako edozein erabili ahalko da, administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubideari eta betebeharrari buruzko 14. artikuluan xedatzen denaren kalterik gabe.*

5.- *Mozioa ezagutzera eman nahi den ohiko osoko bilkura baino astebete lehenago jaso beharko da, gutxienez.*

47. artikulua. - Tratamendua.

1.- *Ekimena horrelako mozioei buruz 24. artikuluan aurreikusten diren eskakizunak bete eta hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan sartuko da.*

2.- *Sinatzaileetako edozeinek puntuaren hasieran parte hartu ahalko du, ekimena aurkezteko, eta bost minutu izango ditu gehienez. Jarraian, udal-taldeek eztabaidatu egingo dute.*

Artículo 46.- Presentación.

1.- *Cuando la moción no resolutive sea presentada por una asociación inscrita en el Registro de Asociaciones municipal deberá ser firmada por quien ostente la representación legal y vendrá acompañada del acuerdo adoptado al respecto por la Asamblea General u órgano supremo de gobierno adoptado por una mayoría que, a su vez, represente, el 1% de los/las vecinos/as de Sopela mayores de edad.*

2.- *Cuando la moción no resolutive sea presentada por las personas mayores de edad que estén empadronadas en el municipio de Sopela y que representen al uno por ciento de quienes ostenten la condición legal de vecinos/as mayores de edad, deberá venir acompañada de una declaración responsable firmada, asimismo, por cada una de tales personas. Esta declaración tiene por objeto garantizar la autenticidad de las firmas que constan en la moción. La declaración responsable podrá ser incluida en el texto de la moción.*

3.- *En cualquier caso, en las mociones se indicará una dirección postal o de correo electrónico o teléfono a efectos de comunicaciones.*

4.- *La moción se podrá presentar por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o normativa que le sustituya, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 14 sobre la obligación de las personas jurídicas de relacionarse electrónicamente con la Administración.*

5.- *La moción deberá recibirse con una antelación mínima de una semana a la celebración de la sesión del Pleno ordinario en el que pretenda exponerse la moción.*

Artículo 47.- Tratamiento.

1.- *La iniciativa se incluirá en el orden del día del Pleno siguiente a la fecha en que se cumplan los requisitos previstos para este tipo de mociones en el artículo 24.*

2.- *Cualquiera de los firmantes podrá intervenir al inicio del punto para su presentación por un tiempo máximo de cinco minutos para posteriormente procederse a debatir por los grupos municipales.*



48. artikulua. - Bozketa.

Udalbatzak mozioa onartu edo baztertu ahalko du, helburu horrekin egiten den bozketaren bitartez. Baztertzen bada, ezingo da mozio bera aurkeztu.

49. artikulua. - Zuzenketak egiteko ezintasuna.

Herritarren ekimenez aurkezten diren mozioen kasuan, ezingo dira zuzenketak egin.

III. TITULUA UDALKIDEEN ESTATUTUA

I. KAPITULUA UDAL-TALDE POLITIKOAK ETA ATXIKI GABEKO KIDEAK

50. artikulua. - Udal-talde politikoak eta atxiki gabeko kideak.

1.- Udal-jarduerak gauzatzeko, Udalbatzako kideak udal-taldetan antolatuko dira, finkatzen den moduan eta dagozkion eskubide eta betebeharrekin. Aitzitik, kideren bat hauteskunde-talde baten barruan hautatu baldin bazuten baina jada talde horren barruan ez badago edo jatorrizko taldea uzten badu, atxiki gabeko kideak direla ulertuko da. Atxiki gabeko kide horiek ezingo dira beste talde politiko baten barruan egon.

Udal-talde bateko zinegotzi gehienek beren hautagaitza aurkeztu zuen talde politikoaren uzten badute edo taldetik kanporatzen badituzte, talde politiko horren legezko kideak talde politikoan jarraitzen duten zinegotziak izango dira, ondorio guztietarako. Hala ere, Udalbatzako idazkariak hautagaitza aurkeztu zuen talde politikoaren legezko ordezkariarekin hitz egin dezake, gertatutakoa egiaztatzea jakinaraz dezan.

2.- Udalbatzak diru-hornidura esleitu ahalko die talde politikoei, Udalbatzaren urteko aurrekontuaren kontura. Diru-hornidurak osagai finkoa izango du, eta talde guztietarako berdina izango da. Eta beste osagaia aldakorra izango da, talde bakoitzak zenbat

Artículo 48.- Votación.

El Pleno podrá aprobar o rechazar la moción mediante votación efectuada al respecto. En caso de ser rechazada no se podrá volver a presentar la misma moción.

Artículo 49.- Imposibilidad de enmiendas.

En los supuestos de mociones presentadas por la Iniciativa Ciudadana no cabrá la posibilidad de enmendar la misma.

TÍTULO III ESTATUTO DE LOS MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN

CAPÍTULO I DE LOS GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES Y LOS MIEMBROS NO ADSCRITOS

Artículo 50.- Los grupos políticos municipales y los miembros no adscritos.

1.-A efectos de su actuación corporativa, los miembros de las Corporaciones Locales se constituirán en grupos políticos, en la forma y con los derechos y obligaciones que se establezcan con excepción de aquellos que no se integren en el grupo político que constituya la formación electoral por la que fueron elegidos, o que abandonen su grupo de procedencia, que tendrán la consideración de miembros no adscritos. Estos miembros no adscritos no podrán formar parte de ningún otro grupo político.

Cuando la mayoría de los concejales y concejalas de un grupo político municipal abandonen la formación política que presentó la candidatura por la que concurrieron a las elecciones o sean expulsados de la misma, serán los concejales o concejalas que permanezcan en la citada formación política los legítimos integrantes de dicho grupo político a todos los efectos. En cualquier caso, el secretario o la secretaria de la Corporación, podrá dirigirse al representante legal de la formación política que presentó la correspondiente candidatura a efectos de que notifique la acreditación de las circunstancias señaladas.

2.- El Pleno de la corporación, con cargo a los presupuestos anuales de la misma, podrá asignar a los grupos políticos una dotación económica que deberá contar con un componente fijo, idéntico para todos los grupos y otro variable, en función del



kide dituen kontuan hartuta. Dena den, dagozkion legeetan finkatzen diren mugak beteko dira, eta ezingo da erabili Udalbatzaren zerbitzura dauden langileei ordainsariak emateko edo ondare-aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak erosteko.

Talde politikoek aurreko paragrafoan aipatu den diru-horniduraren kontabilitate espezifikoaren egin beharko dute, eta Udalbatzaren eskura jarriko dute eskatzen duen aldiro.

3.- Atxiki gabeko kideen eskubide ekonomikoak eta politikoak ezingo dira izan jatorrizko taldean izango lituzketenak baino handiagoak, eta arau hauen arabera gauzatuko dira:

a) Informazio-batzorde guztietan parte hartzeko eskubidea izango dute.

b) Ez dute izango Bozeramaileen Batzarrean eta Tokiko Gobernu Batzordean kide gisa parte hartzeko eskubidea, ezta parte-hartze politikorako oinarritzeko eskubidea gauzatzeko ezinbestekotzat jotzen diren eginkizunak ez dituen beharrezko organoetan parte hartzekoa ere.

c) Ez dute izango udal-talde politikoei dagokien diru-hornidura jasotzeko eskubidea, eta ez dituzte lehengoak baino dieta handiagoak jasoko kide anitzeko organoen saioetara joateagatik.

d) Bulego edo lokal bat eduki ahalko dute bilerak egin eta herritarren bisitak jasotzeko, horretarako espazio erabilgarria baldin badago.

Aurreikuspen hori ez da aplikatuko hauteskunde-koalizio gisa aurkezten diren hautagaitzetan, koalizioa osatzen duten alderdi politikoetako baten batek uztea erabakitzen badu.

4.- Alkatearenak ez diren taldeek bulego edo lokal bat edukitzeko eskubidea izango dute, banaka bildu eta herritarren bisitak jaso ahal izateko. Hari horretatik, giza bitartekoen eta bitarteko materialen gutxienezko azpiegiturak emango zaizkie, udal-egituraren aukera funtzionalen arabera. Alkateak aztertuko du nola jokatu zentzu horretan.

Udal-titulartasuneko eraikinetan dauden aretoak edo

número de miembros de cada uno de ellos, dentro de los límites que, en su caso, se establezcan con carácter general en las leyes correspondientes y sin que puedan destinarse al pago de remuneraciones de personal de cualquier tipo al servicio de la corporación o a la adquisición de bienes que puedan constituir activos fijos de carácter patrimonial.

Los grupos políticos deberán llevar una contabilidad específica de la dotación a que se refiere el párrafo anterior que pondrá a disposición del Pleno de la Corporación siempre que éste lo pida.

3.- Los derechos económicos y políticos de los miembros no adscritos no podrán ser superiores a los que les hubiesen correspondido de permanecer en el grupo de procedencia y se ejercerán de acuerdo con las siguientes reglas:

a) Tendrán derecho a participar en todas las Comisiones Informativas.

b) No tendrán derecho a participar en la Junta de Portavoces, en la Junta de Gobierno Local en calidad de miembros ni en ningún otro órgano necesario que no desempeñe funciones que se consideren esenciales para el ejercicio del derecho fundamental a la participación política.

c) No tendrán derecho a percibir la dotación económica que corresponde a los grupos políticos municipales y tampoco percibirán, por asistencia a órganos colegiados, dietas superiores a las que vinieran percibiendo.

d) Podrán disponer de un despacho o local para mantener reuniones y recibir visitas de ciudadanos, siempre y cuando, haya espacios disponibles a tal fin.

Esta previsión no se aplicará en caso de candidaturas presentadas como coalición electoral, cuando alguno de los partidos políticos que la integren decida abandonarla.

4.- Los grupos distintos de aquel al que pertenezca el alcalde o la alcaldesa tendrán derecho a disponer de un despacho o local para reunirse de forma individualizada y recibir visitas de ciudadanos y se les proporcionará una infraestructura mínima de medios personales y materiales en la medida de las posibilidades funcionales de la estructura municipal que serán apreciadas por la Alcaldía.

Tendrán también acceso al uso, para reuniones de



lokalak ere erabili ahalko dituzte udalerriko entitate, elkarte edo kolektiboekin lan-bilerak egiteko. Beharrak behar besteko denborarekin jakinarazi beharko dira, dagozkion udal-zerbitzuek erabilgarri dauden lekuak koordinatu ahal izateko.

Azpiegituren erabilera ukatzen edo mugatzen bada, ebazpen arrazoitua eman beharko da idatziz, eskaera ere horrela aurkeztu baldin bada.

51. artikulua. - Talde politikoek eskuduntzak.

Udal-talde politikoek eskuduntza hauek dituzte:

a) *Taldearen bozeramailea izendatzea, hurrengo artikuluan xedatzen denari jarraituz.*

b) *Taldeakideen artean, proposatzea zein zinegotzi izango diren ordezkariak informazio-batzordeetan eta beste organo osagarri batzuetan, eta, hala badagokio, udal-organismo autonomoetako kide anitzeko organoetan eta Udalaren mende dauden gainerako erakundeetan.*

c) *Dagokion informazio-batzordeak irizpenik eman gabeko puntuak gai-zerrendan sartzeko proposamena egitea alkateari, presazko arrazoiengatik eta behar bezala arrazoituta.*

d) *Udalbatzari zuzenean ezagutaraztea gai-zerrendan ez datozen gaiei buruzko proposamenak, bozeramaileak presa alde aurretik justifikatuta eta Udalbatzak onartu eta gero.*

e) *Kontrol-eginkizunetan parte hartzea kide anitzeko organoen ohiko saioetan galde-eskeak eginez.*

f) *Udalaren kontuei buruzko informazioa biltzea eta alkateari eskatzea, Bozeramaileen Batzarraren bitartez.*

52. artikulua. - Bozeramaileak finkatzea.

1.- Udal-talde bakoitzak ordezkari bat izendatuko du, eta hark bozeramaile-lanak egingo ditu. Hautagaitza bakoitzeko zerrendaburua izango da, taldeak besterik adierazten ez badu. Hala balitz, alkateari

trabajo con entidades, asociaciones o colectivos del Municipio, de salas o locales en los edificios de titularidad municipal. Las necesidades deberán comunicarse con antelación suficiente que permita a los servicios municipales correspondientes coordinar la utilización de las dependencias disponibles.

La eventual denegación o limitación de soporte de infraestructura deberá efectuarse mediante resolución escrita motivada si la petición hubiera sido formulada con este carácter.

Artículo 51.- Atribuciones de los grupos políticos.

Los grupos políticos municipales gozan de las siguientes atribuciones:

a) *Designar al/a portavoz del grupo de acuerdo con lo dispuesto en el artículo siguiente.*

b) *Proponer, de entre sus miembros, los concejales o concejalas que le han de representar en las Comisiones Informativas y otros órganos complementarios y, en su caso, en los órganos colegiados de los Organismos autónomos Municipales y demás Entes dependientes del Ayuntamiento.*

c) *Proponer al alcalde o alcaldesa, por razones de urgencia debidamente motivada, la inclusión en el orden del día de asuntos no dictaminados por la correspondiente Comisión Informativa.*

d) *Someter directamente a conocimiento del Pleno, por razón de urgencia, proposiciones sobre asuntos no incluidos en el orden del día, previa justificación de la urgencia por el/la portavoz y aprobación de la misma por el Pleno.*

e) *Participar en la función de control de mediante la formulación en las sesiones ordinarias de los órganos colegiados de ruegos y preguntas.*

f) *Recabar y obtener del alcalde o alcaldesa información sobre los asuntos municipales a través de la Junta de Portavoces.*

Artículo 52.- Institución de portavoces.

1.- Cada grupo municipal designará un o una representante que actuará como portavoz. Dicha condición será asumida por el o la cabeza de lista de cada candidatura salvo que el grupo disponga otra



jakinarazi behar zaio idatziz. Salbuespena alkatearen taldea izango da, bozeramailea berariaz izendatu behar du eta.

2.- Bozeramaileak zinegotziei aitortutako eskuduntzak eta eskubideak gauzatuko ditu taldekide guztien izenean, taldekide bakoitzaren eskubideei kalterik egin gabe.

3.- Udal-taldeko bozeramaileak aurkezten dituen era guztietako idatzia taldekide guztiek sinatzen dituztela ulertuko da.

53. artikulua. - Erabateko arduraldia duen zinegotzia.

1.- Tokiko Gobernu Batzordean ordezkariarik ez duten talde politikoen artean, hauteskunde-emaitzen arabera ordezkari gehien dituen taldeak erabateko arduraldia izango duen zinegotzi bat izendatu ahalko du, alkatea eta Tokiko Gobernu Batzordea kontrolatu eta fiskalizatzeko eginkizunak eraginkortasunez egin ahal izateko.

2.- Izendapena, erabateko arduraldia eta dagokion ordainsaria Udalbatzak erabakiko ditu.

**II. KAPITULUA
ZINEGOTZIEN ESKUBIDEAK ETA
BETEBEHARRAK**

54. artikulua - Kargua hartzea, kentzea eta galtzea.

1.- Alkateak eta Udalbatzako zinegotziek beren karguak hartu ondoren, dagozkien ohoreak, eskumenak eta sariak izango dituzte, legeek, erregelamendu honek eta tokiko erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta lege-erregimenaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak xedatzen dutenarekin bat etorriz. Halaber, dagozkien betebeharrak zorrotz bete behar dituzte.

2.- Alkate eta zinegotzi karguak hartu, kendu eta galtzea dela eta, hauteskondeen araubide orokorraren gaineko legerian xedatutakoari jarraituko zaio.

cosa y lo comunique por escrito al alcalde o alcaldesa, se exceptúa el grupo de pertenencia del alcalde o alcaldesa que deberá designar de forma expresa al portavoz.

2.- El portavoz o la portavoz ejercita en nombre de todos los miembros del grupo, y sin perjuicio del derecho que a cada uno asista a título individual, las atribuciones y derechos reconocidos a los concejales o concejales.

3.- Los escritos de todo orden que presente el portavoz o la portavoz del grupo municipal se entienden suscritos por todos los miembros.

Artículo 53.- concejal o concejala con dedicación exclusiva.

1.- El grupo político más representativo de acuerdo con los resultados electorales que no tenga representación en la Junta de Gobierno Local tendrá derecho a designar un concejal o concejala con dedicación exclusiva con el fin de que las funciones de control y fiscalización del alcalde o alcaldesa y de la Junta de Gobierno Local puedan llevarse a cabo de forma efectiva.

2.- La designación, la dedicación exclusiva y la retribución correspondiente deberá ser acordada por el Pleno de la Corporación.

**CAPÍTULO II
DE LOS DERECHOS Y DEBERES DE LOS Y LAS
CONCEJALES**

Artículo 54.- Adquisición, suspensión y pérdida del cargo.

1.- El Alcalde o Alcaldesa y los Concejales o Concejales de la Corporación, gozarán, una vez hayan tomado posesión de sus cargos, de los honores, prerrogativas y distinciones propias de los mismos, de acuerdo con lo establecido por las leyes, el presente Reglamento y el Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y están obligados al cumplimiento estricto de los deberes y obligaciones inherentes a aquéllos.

2.- La adquisición, suspensión y pérdida de la condición de alcalde o alcaldesa, concejal o concejala, se rige por lo dispuesto en la legislación de régimen electoral general.



55. artikulua. - Bateriaezintasunak.

1.- Udalbatzako kideek bateraezintasunei buruzko arauak bete behar dituzte beti, eta bateraezintasuna eragin dezakeen egoera ororen berri emango diote Udalari.

2.- Bateriaezintasun-kausarik sortzen denean, dagokion espedientea bideratuko da, interesdunari entzunaldia emango zaio eta Udalbatzak bateraezintasuna sortu dela adieraziko du. Bateriaezintasunari buruz Udalbatzak ematen duen erabakiaren jakinarazpena jaso eta 20 eguneko epean, interesdunak zer egin erabaki beharko du: zinegotzi izateari uko egin edo bateraezintasuna eragin duen egoera alde batera utzi.

56. artikulua. - Eskubideak.

Udalbatzako kideen eskubideak eta betebeharrak legeetan aitortutakoak dira, eta bereziki, hauek:

a) Dagozkion kide anitzeko organoen saioetara joatea eta saioetan hitz egin eta botoa ematea; zuzenketak eta boto partikularrak aurkeztea; eta galde-eskeak eta interpelazioak egitea, araudi aplikagarrian ezarrita dagoenaren arabera.

b) Osoko bilkuretara joaten diren ikusleen galderen ondorioz parte hartzea, saioa amaitutzat emandakoan, parte hartzeko txandan, aipamenengatik parte hartzeko eskubidea eragotzi gabe.

c) Dagozkion saioen gai-zerrendako auziei buruzko dokumentuak aztertzea, deialdia egiten denetik aurrera.

d) Beren eginkizunetarako beharrezkoa den informazioa udal-organoei eta -zerbitzuei ematea, informazioa lortzeko aukera lege mugatuta ez badago.

e) Udalbatzaren eta parte hartzen duten informazio-batzordeen edo beste organo batzuen aktak jasotzea, eta alkateak, ordezkariak eta Tokiko Gobernu Batzordeak emandako ebazpenen eta hartutako erabakien zerrenda eskuratzea.

Artículo 55.- Incompatibilidades.

1.- Los miembros de la Corporación deberán observar en todo momento las normas sobre incompatibilidades y deberán poner en conocimiento del Ayuntamiento cualquier hecho que pudiera constituir causa de la misma.

2.- Producida una causa de incompatibilidad, instruido el oportuno expediente, con audiencia al interesado o interesada y declarada la misma por el Pleno, el afectado o afectada deberá optar en el plazo de 20 días siguientes a aquél en que reciba la notificación del acuerdo plenario de su incompatibilidad, entre la renuncia a la condición de concejal o concejala, o el abandono de la situación que dé origen a la referida incompatibilidad.

Artículo 56.- Derechos.

Los derechos y deberes de los miembros de la Corporación son los reconocidos por las leyes, y especialmente, los siguientes:

a) Asistir con voz y voto a las sesiones de los órganos colegiados de que formen parte, así como a presentar enmiendas y votos particulares y formular ruegos, preguntas e interpelaciones de acuerdo con lo establecido en la normativa aplicable.

b) Intervenir con motivo de preguntas que se formulen por el público asistente a una sesión plenaria, una vez levantada la sesión, en el turno de intervenciones correspondiente, sin perjuicio de su derecho a intervenir por alusiones.

c) Examinar los documentos relativos a los asuntos incluidos en el orden del día de cualquier sesión de la que forme parte, a partir de su convocatoria.

d) Obtener por parte de los órganos y servicios municipales la información necesaria para el desarrollo de las funciones y cuyo acceso no se encuentre legalmente limitado.

e) Recibir las actas del Pleno y Comisiones Informativas u otros órganos de los que formen parte, así como el acceso a la relación de resoluciones y acuerdos adoptados por el alcalde o alcaldesa, delegados y delegadas y la Junta de Gobierno Local.



f) *Postontzi pertsonal bat izatea udal-eraikinean, Udalaren barneko gutun ofizialak eta kanpokoak jasotzeko.*

g) *Kontrako botoa eman dien udal-erabakiak bide administratibo eta jurisdikzionaletan aurkaratzea.*

h) *Ordainsariak jasotzea Udalbatzak erabakitako zenbatekoen arabera eta kasuan-kasuan onartu den arduraldi-erregimena kontuan hartuta, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan edo ordezkotutako arauak aurreikusten denari jarraituz.*

i) *Erabateko arduraldia edo arduraldi partziala aitortuta ez duten zinegotziek laguntzak jasotzeko eskubidea izango dute dagozkien kide anitzeko organoen saioetara joateagatik (Bozerramaileen Batzarrarenak barne), Udalbatzak erabakitzen duen zenbatekoaren arabera.*

j) *Udalbatzako kide guztiak kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango dute karguak eragiten dizkien gastuengatik, behar bezala justifikatzen baldin badira. Desplazamendu- eta lokomozio-dietengatik egiten diren gastuak indarreko legerian aurreikusitakoaren arabera ordainduko dira.*

k) *Udalarekiko harremanetan, bitarteko elektronikoa erabiltzeko laguntza jaso ahalko dute. Halaber, horretarako behar diren hardwarea eta softwarea emango zaizkie.*

57. artikulua. - Betebeharrak.

Udalbatzako kideen betebeharrak legeetan aitortutakoak dira, eta bereziki, hauek:

a) *Udalbatzaren eta parte hartzen duten kide anitzeko beste organo batzuen saioetara joatea.*

b) *Bateraezintasunei buruzko arauak betetzea beti, eta bateraezintasuna eragin dezakeen egoera ororen berri ematea Udalbatzari.*

c) *Gai batean legezko abstentzio-betebeharra dakarten kausetako edozein sortzen denean, eztabaidan, bozketan eta gauzatzeko zereginean parte ez hartzea.*

f) *Disponer en el edificio municipal de un buzón personal para la correspondencia oficial interior y la de procedencia externa.*

g) *Impugnar en vía administrativa y jurisdiccional los acuerdos municipales en los que haya votado en contra.*

h) *Percibir retribuciones en las cuantías acordadas por el Pleno en función del régimen de dedicación aprobado en cada caso de acuerdo con lo previsto en el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local o norma que le sustituya.*

i) *Las concejales o concejales que no tengan reconocida dedicación exclusiva ni parcial tendrán derecho a percibir asistencias por la concurrencia efectiva a las sesiones de los órganos colegiados de los que formen parte, incluyendo la Junta de Portavoces, en la cuantía acordada por el Pleno.*

j) *Todos los miembros de la Corporación tendrán derecho a ser indemnizados por los gastos ocasionados por el ejercicio del cargo que se encuentren debidamente justificados. Los gastos en concepto de dietas de desplazamiento y locomoción se abonarán según lo previsto en la legislación vigente.*

k) *A ser asistidos en el uso de medios electrónicos en sus relaciones con el Ayuntamiento. Asimismo, se facilitará tanto el hardware como el software necesario para su ejecución.*

Artículo 57.- Deberes.

Son deberes de los miembros de la Corporación los establecidos en las leyes y especialmente los siguientes:

a) *Asistir a las sesiones del Pleno y de otros órganos colegiados de los que formen parte.*

b) *Observar en todo momento las normas sobre incompatibilidades y poner en conocimiento de la Corporación cualquier hecho que pudiera constituir causa de las mismas.*

c) *Abstenerse de participar en la deliberación, votación y ejecución de cualquier asunto en que concurra cualquiera de las causas que configuran el deber legal de abstención.*



d) *Kargua hartu aurretik, bateraezintasunen, jardueren eta ondare-ondasunen adierazpena egitea, erregelamendu honetan eta legeria orokorrean aurreikusten diren baldintzetan, eta adierazpen hori eguneratuta izatea agintaldian zehar.*

e) *Aldeko botoa ematen dieten erabakien gaineko erantzukizun zibila, penala eta administratiboa onartzea.*

f) *Beren kargua dela-eta eskuratzen duten informazioaren konfidentzialtasuna mantentzea.*

g) *Zinegotziek Udalbatzako kide gisa egiten dituzten izapide eta jarduera guztietan, Sopelako Udalarekiko harremana bitarteko elektronikoz bideratzeko betebeharra dute.*

58. artikulua - Saioetara ez joatea.

1.- *Udalbatzaren edo parte hartzen duten kide anitzeko beste organo batzuen saioetara joan ezin badira, saioko buruari justifikatu beharko zaio, eta, justifikazioa onartzen badu, ezingo da zigorrak ezarri.*

2.- *Udalkideren bat Udalbatzaren edo informazio-batzordeen ondoz ondoko hiru saiotara edo urtebetean ondoz ondokoak ez diren lau saiotara joaten ez bada eta justifikatuta ez badago, erabaki den ezein motatako ordainsaria edo diru kopurua jasotzeko eskubidea gehienez hiru hilabetez galtzeko zigorra ezar daiteke.*

3.- *Ebazpena Udalbatzako buruak emango du, eta kontraesaneko espedienteak izapidetu beharko da eta interesdunari entzunaldia eman.*

59. artikulua. - Udal-informazioa eskuratzea.

1.- *Udalbatzako zinegotzi guztiek formatu elektronikoa dauden udal-espediente guztiak eskuratu ahalko dituzte zuzenean, elektronikoki, salaketen barneko kanalaren bidez aurkezten diren salaketei buruzko espedienteak izan ezik, sekretuak baitira.*

2.- *Espedienteak elektronikoki eskuratzeko aukera zinegotziek udal-jarduera kontrolatu eta*

d) *Formular la declaración de incompatibilidades y actividades y de bienes patrimoniales antes de la toma de posesión del cargo en los términos previstos por este Reglamento y por la legislación general y mantener dicha declaración actualizada a lo largo del mandato.*

e) *Asumir la responsabilidad civil, penal y administrativa de las decisiones adoptadas y acuerdos en los que hubiera intervenido con voto favorable.*

f) *Mantener la confidencialidad de la información a la que haya accedido por razón del cargo.*

g) *Todos los concejales y las concejalas tienen la obligación de relacionarse con el Ayuntamiento de Sopela por medios electrónicos en la realización de todos los trámites y actuaciones que lleven a cabo en su condición de miembros de la Corporación.*

Artículo 58.- Faltas de asistencia.

1.- *La inasistencia a las sesiones del Pleno o de otros órganos colegiados de los que se forme parte, deberá justificarse ante la Presidencia, y aceptada la justificación por ésta, la inasistencia no podrá ser objeto de sanción.*

2.- *La inasistencia injustificada a tres reuniones consecutivas del Pleno o de las Comisiones Informativas o a cuatro alternas durante un periodo de un año, podrá ser sancionada con la pérdida del derecho a percibir la retribución o la asignación económica de cualquier naturaleza acordada hasta un máximo de tres meses.*

3.- *La resolución, que será adoptada por el presidente de la Corporación, requiere la tramitación de expediente contradictorio, con audiencia al interesado.*

Artículo 59.- Acceso a la información municipal.

1.- *Todos y todas las concejalas de la Corporación tendrán acceso electrónico directo a todos los expedientes municipales que se encuentren bajo dicho formato a excepción de los expedientes que se refieran a las denuncias presentadas a través del Canal Interno de Denuncias que tendrán carácter secreto.*

2.- *Dicho acceso electrónico es una medida destinada a facilitar el ejercicio del derecho de todos*



fiskalizatzeko duten eskubidea errazteko neurri bat da. Horrenbestez, lortzen den informazioa ezingo da laga, erabili edo zabaldu beste edozein xederekin; bereziki, amaitu gabe dauden espedienteetako informazioa eta datuak babesteko araudiaren gerizpean dauden datuak.

3.- Halaber, kontsultak egin ahal izango dizkiete udal-langileei eta, hala badagokio, udal-zerbitzu, -obra edo -hornidura baten esleipendun suertatzen diren kanpoko enpresetako arduradunei.

III. KAPITULUA INTERESEN ERREGISTROA

60. artikulua. - Erregistroa antolatzea.

1.- Udalbatzako kideen interesen erregistroa alkatearen ardurapean antolatzen da, eta idazkariak babesten du segidan. Bi atal ditu:

a) Batetik, bateraezintasuna eragin dezaketen kausak eta diru-sarreraren bat eman dezaketen jarduerak.

b) Eta bestetik, ondare-ondasunak eta era guztietako sozietateetako partaidetza, estatuko oinarrizko legeriaren baldintzetan.

2.- Erregistroa bitarteko mekanikoekin antolatuko da, datuak modu automatizatuan tratatuz. Era horretan, erregistroa une oro mantendu eta eguneratuko da, eta ziurtagiriak edo beste azpiproduktu batzuk zuzenean lortuko dira. Udalkide bakoitzak bere erregistro-zenbakia izango du, eta ez da aldatuko agintaldi osoan.

3.- Erregistroko datuetan gertatzen diren aldaketak dagokion datu-basean txertatuko dira, eta interesdunaren orri eguneratua lortuko da. Aurretik zegoen orrian edo orrietan ordena kronologikoan txertatuko da.

61. artikulua. - Adierazteko betebeharra.

1.- Bateraezintasuna eragin dezaketen kausei, jardueri eta ondare-ondasunei buruzko adierazpena Udalbatzako kide bakoitzak egin beharko du, arau hauei jarraikiz:

y todas las concejalas al control y fiscalización de la labor municipal por lo que no es posible la cesión, utilización o difusión de la información obtenida para cualquier otro fin; especialmente respecto de aquellos expedientes inconclusos y en relación con aquellos datos que se encuentren amparados por la normativa de protección de datos.

3.- Podrán, también, realizar consultas oportunas al personal municipal y, en su caso, a los responsables de las empresas externas que resulten adjudicatarias de algún servicio, obra o suministro municipal.

CAPÍTULO III EL REGISTRO DE INTERESES

Artículo 60.- Organización del Registro.

1.- El Registro de intereses de los miembros de la Corporación se organiza bajo la responsabilidad del alcalde o alcaldesa y la custodia inmediata del secretario o de la secretaria, y se integra por dos secciones:

a) La relativa a las causas de posible incompatibilidad y actividades que puedan proporcionar o proporcione algún ingreso económico.

b) La relativa a los bienes patrimoniales y participación en sociedades de todo tipo en los términos de la legislación básica estatal.

2.- El Registro se organizará por medios mecánicos mediante el tratamiento automatizado de los datos que haga posible el mantenimiento permanente y actualizado y la obtención directa de certificaciones u otros subproductos. A cada corporativo se le asignará un número de registro que permanecerá invariable durante todo el mandato.

3.- Las variaciones en los datos del Registro serán incorporadas a la base de datos correspondiente con obtención de nueva hoja actualizada del afectado que será adicionada por orden cronológico a la hoja u hojas existentes con anterioridad.

Artículo 61.- Obligación de declarar.

1.- La declaración sobre causas de posible incompatibilidad y actividades y la de bienes patrimoniales deberá ser formulada por cada miembro de la Corporación con arreglo a las normas siguientes:



a) *Zinegotzi kargua hartu aurretik, eta kargua hartu aurreko eskakizun edo baldintza gisa.*

b) *Agintaldian zehar, ondarea edo egiten diren jarduerak aldatzen direnean. Aldaketa hilabeteko epean jakinarazi beharko da.*

c) *Kargutik kentzeagatik eta agintaldia amaitzen denean.*

2.- *Adierazpena egiteko, Udalak onartzen duen eredua erabiliko da, eta notario-dokumentu batean prestatu ahalko da. Erregistroaren aurrean aurkeztu beharko da, edo, bestela, interesduna Udaleko idazkariaren aurrean ager daiteke.*

62. artikulua. - Erregistroaren publikotasuna.

1.- *Ondasun eta jardueren urteko adierazpenak urtero argitaratuko dira Udalaren gardentasunaren atarian eta, edozein kasutan ere, agintaldia amaitzen denean.*

2.- *Interesen erregistroa ere publikoa izango da.*

Beren kargua dela-eta tokiko ordezkarien edo Tokiko Gobernu Batzordeko kide ez-hautatuen segurtasun pertsonala, haien ondasun edo negozioena, familiakoena, bazkideena, langileena edo harreman ekonomiko edo profesionala duten pertsonena arriskuan egon baldin badaiteke, ondare-ondasunen eta -eskubideen adierazpena Aldundiko organo eskudun baten aurrean egin ahalko dute, edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudun baten aurrean. Adierazpenak aipatu erakundeek xede horrekin sortutako Ondare Ondasunen Erregistro Berezian inskribatuko dira.

Horrelakoetan, ziurtagiri soil eta labur bat helaraziko diote Udaleko idazkariari, adierazpenak egin dituztela eta aurreko paragrafoan aipatu den interesen erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzeko. Ziurtagiria erregistroaz arduratzen den funtzionarioak emango du.

a) *Antes de la toma de posesión del cargo de concejal o concejala y como requisito o condición previa a la misma.*

b) *Durante el periodo de mandato, cuando se produzca cualquier variación patrimonial o de ejercicio de actividades. La modificación deberá comunicarse en el plazo de un mes.*

c) *Con ocasión del cese y al final del mandato.*

2.- *La declaración se ajustará al modelo aprobado por el Ayuntamiento y podrá instrumentarse en documento notarial que deberá ser presentado ante el Registro o mediante comparecencia del interesado ante el secretario o secretaria del Ayuntamiento.*

Artículo 62.- Publicidad del Registro.

1.- *Las declaraciones anuales de bienes y actividades deberán publicarse con carácter anual en el portal de la transparencia del Ayuntamiento y, en todo caso, en el momento de la finalización del mandato.*

2.- *El Registro de intereses tendrá también carácter público.*

Los representantes locales y miembros no electos de la Junta de Gobierno Local respecto a los que, en virtud de su cargo, resulte amenazada su seguridad personal o la de sus bienes o negocios, la de sus familiares, socios, empleados o personas con quienes tuvieran relación económica o profesional podrán realizar la declaración de sus bienes y derechos patrimoniales ante el órgano competente de la Diputación o, en su caso, ante el órgano competente de la Comunidad Autónoma. Tales declaraciones se inscribirán en el Registro Especial de Bienes Patrimoniales, creado a estos efectos en aquellas instituciones.

En este supuesto, aportarán al secretario o secretaria del Ayuntamiento una mera certificación simple y sucinta, acreditativa de haber cumplimentado sus declaraciones, y que éstas están inscritas en el Registro Especial de Intereses a que se refiere el párrafo anterior, que sea expedida por el funcionario encargado del mismo.



IV. TITULUA
UDAL-AURREKONTUAREN PROIEKTUA EGIN
ETA IZAPIDETZEKO PROZEDURA BEREZIA

63. artikulua. - Aurrekontu-proposamena egitea.

1.- Sopelako Udalaren aurrekontu-proiektua jarraian azalduko den prozedura bereziaren arabera izapidetuko da. Horren ordeztu, Udalbatzak erabakiak hartzeko ohiko prozedurari buruzko xedapenak aplikatuko dira.

1) Alkatetzak aurrekontu nagusiaren aurreproiektua egin ostean, udal-talde politikoen eskura jarriko da, proposamenak egin ditzaten 10 egun balioduneko epean, gutxienez. Izapidetzeko egutegia proiektua aurkezteko komunikazioan bertan finkatuko da.

Aurreproiektuak atal hauek izango ditu, gutxienez: diru-sarreraren eta gastuen egoera, memoria, txosten ekonomiko-finantzarioa, langileei buruzko eranskinak, programak, inbertsioak eta transferentziak.

2) Epea amaitzen denean, Alkatetzak astebete emango du, gutxienez, behin betiko proiektua prestatzeko, proposamenak eta negoziazioak kontuan hartuta. Proiektua, dokumentu guztiekin, dagokion informazio-batzordera eramango da, irizpena eman dezan.

64. artikulua. - Aurrekontuaren zuzenketa aurkezteko araubide espezifiko.

1.- Zerbait aldatu edo gehitzeko zuzenketa partzialetan, zehazki zer proposatzen den eta, hala badagokio, finantzazioa azaldu beharko dira, hasierako aurrekontu-superabitaren kontura, gastuak murriztuz edo diru-sarrerak handiagotuz.

2.- Besteak beste, ez da onartuko zuzenketa hauek izapidetzea:

1) Aurrekontu-defizita eragin dezaketenak.

TÍTULO IV
DEL PROCEDIMIENTO ESPECIAL PARA LA
ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE
PRESUPUESTO MUNICIPAL Y SU
TRAMITACIÓN

Artículo 63.- Elaboración del proyecto de presupuesto.

1.- El Proyecto de Presupuesto del Ayuntamiento de Sopela se tramitará con arreglo al siguiente procedimiento especial, siendo de aplicación supletoria las disposiciones relativas al procedimiento común de adopción de acuerdos por el Pleno.

1) Una vez elaborado por la Alcaldía, el Anteproyecto de Presupuesto General será puesto a disposición de los grupos políticos municipales para que formulen propuestas al mismo en un plazo mínimo de 10 días hábiles. En la misma comunicación de presentación quedará fijado el calendario para la tramitación del Proyecto.

Dicho Anteproyecto se compondrá, como mínimo de un estado de ingresos y gastos, memoria, informe económico financiero, anexos de personal, programas, inversiones y transferencias.

2) Finalizado dicho plazo, la Alcaldía dispondrá de un tiempo mínimo de una semana para, a la vista de las propuestas presentadas y las negociaciones llevadas a cabo, elaborar el Proyecto Definitivo que, con su documentación íntegra, será sometido a dictamen de la Comisión Informativa correspondiente.

Artículo 64.- Régimen específico de la presentación de las enmiendas al Presupuesto.

1.- Las enmiendas parciales de modificación o adición deberán contener la alternativa concreta que se propone y la financiación, en su caso, con cargo al superávit del presupuestario inicial o bien mediante una disminución de gastos o un incremento de los ingresos.

2.- Entre otras, no se admitirán a trámite las siguientes enmiendas:

1) Las que dieran lugar a una situación de déficit presupuestario.



2) *Diru-sarrerak handitzea dakartenak, ekitaldian zehar hori lortu ezin bada edo nekez lortu badaiteke. Proposatzen diren xedeetarako legez aplikatu ezin diren zuzenketak ere ez.*

3) *Udalak hartutako konpromisoak betetzera bideratutako diru-hornidurak murrizten dituztenak.*

3.- *Gainerako kontuetarako, 25. artikuluan adierazitakoa beteko da.*

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Alkateari erregelamendu honetan aldaketak egiteko gaitasuna ematen zaio, baina ezinbestez aplikatu behar diren legezko aldaketekin lotuta egon behar dute. Egoera hori jasota utziko da berariaz. Aldaketen berri emango da berresteko asmoz egiten den hurrengo osoko bilkuran.

Udalbatzak berretsi ondoren, aldaketak egiteko dekretua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, indarrean sartzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 2006ko irailaren 19ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Sopelako Udalaren Erregelamendu Organikoa.

Udal-xedapenetako arauen bat erregelamendu honetako xedapenen aurka badago, kontrakoa esaten badu edo bateraezina baldin bada, indargabetuta geratzen da.

2) *Las que contengan incrementos de ingresos de imposible o muy difícil realización durante el ejercicio, o que su aplicación a los fines propuestos no resulte legalmente factible.*

3) *Aquellas otras que minoren dotaciones destinadas al cumplimiento de compromisos adquiridos por el Ayuntamiento.*

3.- *En cuanto al resto de las cuestiones se estará a lo dispuesto en el artículo 25.*

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

Se habilita al alcalde o a la alcaldesa para introducir modificaciones en el presente Reglamento que respondan única y exclusivamente a cambios legales que deban ser aplicados obligatoriamente, lo que se hará constar expresamente. De estas modificaciones se dará cuenta en la siguiente sesión plenaria que se celebre a efectos de su ratificación.

El Decreto por el que se introduzcan las modificaciones, una vez ratificado por el Pleno, será publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia para su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Reglamento Orgánico Municipal del Ayuntamiento de Sopela publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia en fecha de 19 de septiembre de 2006.

Quedan derogados cuantos preceptos contenidos en las disposiciones municipales se opongan, contradigan o resulten incompatibles con las disposiciones del presente Reglamento.